

Kroketak ordainetan

Oihane Larretxea
de la Granja

Badira zenbait urte auzoko taberna batean sartu eta akademian ikasitako «*hello!*» plastifikatu batekin agurtu nindutela barraren beste aldetik. Harridura ezkutatu gabe bertakoa nintzela erantzun nion, bizilaguna alegia, eta euskaraz egiteko. Belarri batetik sartu eta bestetik atera zitzaion, jarraian plater bat eman zidalak. Bai, giriekin egiten duten moduan: plater handi bat pintxoz betetzeko.

Oraingoan nire haserrea ezkutatu gabe, bertakoa nintzela errepikatu nion, eta bi kroketa eta bi mosto baino ez nituela nahi, beraz ez nuela platerik behar. Ez dago entzun nahi ez duen baino

gor handiagorik. Platera luzatzen jarraitzen zuen, insistitu egiten zuen.

Aspaldi aldatu zen Donostiako Alde Zaharra, txarrera esan nahi dut. Eta izen-abizena dute hori eragin dutenak. Diru goseak mugituta, zenbait ostalarik erosi dituzte tabernak bata bestearen atzetik, “gure betiko” tabernen identitatea lapurtuz, auzoaren arima bahituz, batzuek tabernak eta haietaz gozatzeko ulertzen ditugun moldeak prostituituz. Bai, prostituituz. Diruagatik.

Geroztik, gure auzoaren paisaia eta giroa beste bat dira, geroztik, erraz topa daitezke “besteentzat” diren tabernak. Geroz eta zailago “guretzat” direnak.

Etxekoentzat. Ez gara tentagarriak; hobe esanda, haiek dira errentagarriagoak. Japoniarrak, ingelesak, frantsesak... Euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da, denek catering berdinetik ateratzen diren pintxoez hornitzen dute barra eta lokaletako dekorazioa prefabrikatua da.

Garai zailotan bereziki kezkatuta dau dela pentsatzen dut. Turismoa nola egin ahal izango dugun. «Etorri ahalko dira gurera?». Ai, nola diren gauzak. Akaso orain bizilagunak, pintxoak jateko platerik nahi ez duten bezeroak, beren sostengu izango diren honetan, nik esaten diet guretzat beranduegi dela jada. Pintxoak eskuekin hartzen direla. •

Betiereko konfinamendua hausten

Koldo Sagasti

Azken asteotan koronabirusak eragindako salbuespenezko egoerak hankaz gora jarri digu bizimodua. Komunitatearen ongizatearen izenean sekula ezagutu gabeko eskubide zibilen murrizketak ezarri dizkigute, ustez behin-behinean. Hilabete eta erdi luzez etxean geldiarazi gaituzte, kalean askatasunez mugitzea eragotzi digute eta maite dugun jendearengandik banandu gaituzte. Eta hala ere, gure bizimodu pribilegiatuak astindu ederra jaso badu ere, nekez imajina dezakegu zer litzatekeen horrelako konfinamendu egoera zenbait urtez, hamarkadaz agian, luzatzea.

Shatilan ondotxo dakite. Beiruteko (Libano) errefuxiatuen kanpamendu

horren izena historiaren orrialde beltzetan odolez izkiriatur dago, 1982an Falange Libanoar Kristauak eta Israelgo Armadak azken mendeko sarraski ankerrenetako bat burutu zutenetik. Bizitza ez da sekula erraza izan testuinguru horretan jaiotako gazteentzat. Iragan udan ezagutu nituen eta orrialde hauetan idatzi nuen Basket Beats Borders ekimenaz. Proiektuak Shatilan du sorburua eta jatorri ezberdinetako neskak biltzen ditu saskibaloia inguruan, elkarbizitza eta aisialdi alternatiba bat eskaintzeko. Orduan, Euskal Herrian egindako bieran, euren kirol jardunaz gain, emakume errefuxiatu gazteen errealitatea ere ikusarazi ziguten.

Orain, haien berezko bizi baldintza gogorrek okerrera egin dute pandemiaren erruz. Libanok 2019tik dakarren krisiaren ondorioz oinarritzko lehengaien prezioa izugarri igo da, eta horri gehitu behar zaio berrogeialdiak behartutako itxialdia. Gauzak horrela, saskibaloiproiektua ekimen humanitarioa bilakatu eta *crowdfunding* kanpaina jarri dute martxan. Aste gutxitan errefuxiatuen kanpamenduko 50 familia oinarritzko elikagai saskiekin hornitzeko adina diru biltzea lortu dute. Aurten, nekez errepikatuko dute munduan zeharreko bidaia, baina ederki erakutsi dute euren betiereko konfinamenduaren mugak haustea dakitela. •